

## GAUDEN ESKUALDUN



Aritz eder bat bada gure inendietan,  
Zazpi adar nausiz da edatzen airetan,  
Frantzian, Espainian, bi alderdian:  
An lau ta emen iru, bat da zazpitan.

Ekialdeko zolan leenik sortua  
Lau mila urte untan or da landatua,  
Aritz orren adar bat ostoz gabetua  
Ez aal da oraino arras iartua.

Zer duk aritz ederra idorkara ori?  
Ortzi sua gainerat ote zaik erori?  
Ala arrek azalpez aute jaten ari?  
Ai! gure amodioz senda bairadi!

I aiz, i, Eskualduna aritz zaar ura,  
Sobera aute moztu; meatu zaik lurra:  
Leengo libertate galduen itchura  
Ire zorigaitzetan eldu zaik burura.

Zuaitz sano dena da ostotik agertzen.....  
Gure aritz ostoa Eskuara da deitzen  
Bizi garenetz dugu ortan ezagutzen  
Eskuarak diraukuno ez gare gu iltzen.

Jakintsunek diote ez dela mintzorik  
Gure Eskuara baino ederragorik  
Balin bada gu baitan oore porrorik

Eskuara dugun iduk garbirik, osorik.

Agur eta oore Eskual-erriari  
Biskai, Nabar, Gipuzko, eta Alabari,  
Lapurdi, Bachenabar eta Chuberori;  
Zazpiak bat lot beitetz besarka elgarri.

Gureak ziren leen toki auk guziak,  
Arbasoek utziak, ek irabaziak  
Eier esker Frantziak eta Espainiak  
Dagozkate dituzten eremu andiak.

Moro beltza zelarik Espainian nausi  
Eskualdunak Nabasen egin zion jauzi  
Lau eun mila Moro ziren an eortzi  
Bertzeak sekulakotz gan ziren iesi.

Moroak guk ezirik oiuz zauden oro,  
»Eskualduna utz bedi bera nausi libro  
»Frantziak Espainiak bai orai bai gero  
»Deus kendu gabe dute gerizatu gogo».

Patu oiez geroztik gan dire denborak  
Artzeduner ukatu diozkate zorrak,  
Oi indarraren lege latz eta gogorrak!  
Zuzenak alfer ditu nigar eiagorak!

Zuri gaude otoitzez, Jaungoiko maitea,  
Lagun zazu zerutik eskualdun jendea;  
Beti begira dezan leengo fedea,  
Eta libertatean besarka bakea.

ZALDUBY.

